

Irakurri, gozatu eta oparitzeko gonbitea egin



Kultura >> 15

Altsasu, atzeraere, mendi bizikleta zaleen topaleku



Kirolak >> 13

Lakuntza Aralar mendilasterketan berritasunak



Kirolak >> 11



Erabakitze eskubidearen katea >>5



Plan estrategikoa gauzatzera >>7

Enplegu-tailer berria martxan da >>3



Irurtzunen hamaika arroz mundu bat islatzeko >>6



Elkartasun festa zaunkaria Altsasun >>8

**ZURE NEGOZIOA
GIDAN
IRAGARTZEKO
DEITU**

**948 56 21 07
618 88 26 27**



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Peru Goikoetxea
Irisarri
Zure 9.urtegunien
familia osuen partez
ZORIONAK TA UR-
TE ASKOTARAKO!!

Bazkideek
deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garagarriak

6-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Kaos Urbano eta Ladis Lao. Garagarriaren 7an, larunbatean, 23:30ean Etxarri Aranazko gaztetxean.

Xaiko, Vendetta eta Tximeleta. Garagarriaren 8an, igandean, 15:30ean Etxarri Aranatzan. **Gure Esku Dago.**

Dantza

Altsasuko Dantza Topaketa. Garagarriaren 6an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Proiektzioak

Jimbar. Explorando el abismo etiope. Garagarriaren 8an, igandean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean. **Evaristo Noveleta** eta lagunak.

Dokumentalak

Euskal Herriko altxorretan barrena. Garagarriaren 6an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean. **Arkaitz Astiazaran Salegi.**

Mendi irteerak

Dima-Balzola. Garagarzaroaren 8an, igandean, 7:00etan Irurtzundik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

Bardoiza eguna. Garagarriaren 8an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

XIX. mendi bizikleta zeharkaldia. Garagarriaren 8an, domekan, 9:00etan Altsasuko plazatik. 50 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Uraren gazte foroa. Garagarriaren 15era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea** institutua.

Bestelakoak

Munduko Arrozak. Garagarzaroaren 7an,



Etxarri zorri azoka bueltan

Gaur, ostirala, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko udaletxeko estalopean. Hileko lehen ostiralarekin batera bueltan da Zorri Azoka, azoka soziala. Azokan bertako barazki ekologikoak, artisautza, bertako produktuak, artea eta musika opa daiteke. Gainera, Zorri Azokaren produktuen zozketa batean parte hartzeko aukera izanen du bisitariak. 19:00etatik 20:00etara gauzak trukatzeko aukera izanen da azokan bertan. Bere produktuak azokan jarri nahi dituenak zorriazokainfo@gmail.com postara eskaera bidali behar du.

larunbatean, 10:00etan Irurtzango plazan.

IV. Txakur Elkartasun Jaialdia. Garagarriaren 7an eta 8an, larunbatean eta domekan, Altsasuko kaputxinoetan.

Eskolako jaia. Garagarriaren 7an, larunbatean, egunean zehar Lakuntzan.

Andra Mari ikastolaren jaia. Garagarriaren 7an, larunbatean, egunean zehar Iturmendin.

Iñigo Aritza ikastolaren jaia. Garagarriaren 7an, larunbatean, egunean zehar Olatzagutian.

Etxarriko gaztetxearen VII. urtemuga. Garagarriaren 7an, larunbatean,

12:00etatik aurrera.

Gure Esku Dago giza katea. Garagarriaren 8an, igandean, 12:00etatik 12:30era Sakanan.

Deialdiak

Zorri azoka, merkatu soziala. Garagarriaren 6an, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Garagarriaren 6an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 6an, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Herri Ostiralak, elkartzu errepresioa gaudituz. Garagarriaren 6an, 20:30ean Altsasuko Foru plazan. Gero afora. **Ospa mugimendua.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garagarriaren 9an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

**GAUR AGENDA eta
ASTEKO ERREPASOA:**
Gure esku giza katea,
Sakanako garapen estrategikoa...

Esataria: *Maider*

IGANDEAN:
10:00-14:00 Gure esku zuzenean (Info7)



GAZTETXEAREN 7. URTEBETETZEA BIHAR: auzatea; 14:30ean bazkaria gaztetxean; Gazte Asanbladak Etxarriko gaztetxeko 7. 17:30ean, Gazte Asanbladen arteko Olinpiadak; eta, 23:30ean, kontzertuak: Josu Anduaga "Dux"-i omanaldia eta Kaos Urbano eta Ladis Lao.

ezkaatza >>

SAKANA



18 gazte irudiak moldatu eta informatika aplikazioak sortzeko eskola tailerlean trebatzen ari dira.

Egitekoak

Lehen hilabeteak ikasten emanen dituzte ikasleek eta gainontzekoetan lanean. Utzuganeko ikasketa gunea hiru espaziotan banatu dute. Batetik, ordenagailuak dituen gela dago, bestean teoria gela eta, azkenik, jangela. Aurreneko bi espaziotan ikasleek lan tailer eremuak sortuko dituzte, coworking-erako, haiek sortutako mikro-enpresek euren lanak egin ditzaten. Eskola-tailerren asmoa eduki digitalak sortzea eta enpresa txikien kudeaketa egiten erakustea da.

Enpresa txiki horiek lan karga izateko tailerreko arduradunak Sakanako enpresa eta toki erakundeetara jo dute. Dagoeneko, Irurtzun, Arbizu eta Altsasuko Udalen, Sakanako Mankomunitatearen, Sakanako Garapen Agentziaren eta Sakanako Enpresaren Elkartearen babesa jaso du. Lacunza Calor de Vida, Inox Naparra edo Euro Alloys enpresek ere interesa azaldu dute. Inork eskola tailerlean praktika garaietan sortu kodirendukien premiabada, ongi etorria emanendiete. Webbat zabalduko dute egiten dituzten lanak erakusteko.

Informatika aplikazio eta 3D sortzaileen mintegia

Teknologia berrien bidez irudiak moldatu eta informatika aplikazioak sortzeko eskola tailerlean 18 gazte ari dira trebatzen

Pasa den asteartetik Utzuganek, Sakanako Garapen Guneak, Sakanako Animatika 3D eskola tailerra hartu du. 30 urte baino gutxiago duten langabetuei zuzendutako ikastaroa da eta 15 hilabeteko iraupena izanen du. Enplegu eskola tailerreko ikasleek jasoko duten prestakuntza bereziki praktikoa izanen da eta ikasketak bukatzean lan merkatuan ikasleek opatuko dutenean oinarritua. Guztiak lan merkatuan sartzea erraztu nahi dute.

Ikasleei bi arlotan eskainiko zaie izaera praktikoko prestakuntza osoa. Batetik, ikus-entzunezko produktu interaktiboaren garapena. Harekin ikasleek katalogo komertzialak, web eta blog multimedialak edota liburu eta entziklopedia interaktiboak egin ditzakete, gailu digital tradizionaletarako, telefono adimenduetarako edo multiplataformako gailu berriendako.

Bestetik, ikasleek 3D animazioan ere trebatuko dira. Horrek fikzioaren eta animazio zinemaren ateak zabalduko dizkie. Izan ere, modelatze, testura emate, eszenatoki, argizatze ezagutzak jasoko dituzte eta gidoiko aspektuak islatzen jakinen dute haiek gero zinema, telebista, publizitatea, efektu berezi, argazki-errealismo, erreallitate handitu eta bestelakoetarako sormen oinarri izateko. Akaberran, bai bata bai besteak akreditazio ofizialeko 3. mailako Ziurtagiri Profesionala emanen die ikasleei.

Hiru irakasle eta 18 ikasle

Urko Mauduit 3D garatzaile irurtzundarrarekin batera Begoña Eguaras (bideo, grafiko eta bestelakoetan aditua) eta Diego Perez Randez (informatika-multimedial aditua) izanen dira adituak. Haien esanetara 18 ikasle izanen dira, 60 hautagaiaren artean aukeratuak.

Helburua, lanpostuak sortzea

Ez zuten ikasle guztiak sakandarrak izatea nahi. "Denak espezializazio bera izanik, ezer ez izatetik gehiegi izatera pasako ginateteke eta hori ere ez da ona. Lana opatzeko sakabanaketa ona da. Helburua lanpostuak sortzea da". Horregatik, Sakanako 11 ikasle daude, Larraungo 1 eta Iruñerriko 6.

Gainera, hautatutakoek aurretik ziztuzten ikasketak ezberdinak izatea nahi zuten. Batzuek lanbide aldaketa izateko eta besteendako aurreko lanbidearen osagarri izan dadin. Azken horiek enplegu aukera hobeak izan ditzakete. Eta lanbide berri gisa hartzen dutenek, berriz, autoenpleguan sakondu beharko dute.

Gela teknologikoa erabilgarri

Bestalde, Utzuganen jarri duten ordenagailu gela, eskola-tailerrik libre uzten duenetan (arratsaldeak eta larunbatak) libre geratuko da, prestakuntzarako edozein ekimenerako erabilgarri. Eskola-tailerreko arduradunek jakinarazi dutenez, aurrerago teknologia garatuagoen eskaintza egitea dute buruan.

EKAINAK 8 | **GIZA-KATEA**
ELKARLANEKO JARRAIPENA

Hainbat hedabidek elkarlanean erabakitzeke eskubidearen aldeko giza katearen jarraipena egingo dugu, Ekainaren 8an, goizean goizetik hasita, plataforma anitzetan.

beleixe 107.3 FM
GUAIXE.net

naiz: berria goiena" Hamarika Jargia Piztu ahotsa orrosa

GARA hitza² INFO Librean Zuzenean Ataria 25 orotokia TOKIKOM



Raf Atxuri

astekoa

Bilbo eta Euskal Herria

“Hiri egolatra batek behar zuen alkate egolatra”. Halaxe definitu zuen irrati solastari giputz batek Iñaki Azkuna haren heriotza ondoko egunean. Luze eta zabal jo zuen Azkunaren kanonizazioak Bilbon eta euskal (baita espainiar) bazter batzuetan eta “munduko alkate”aren azkenak Bilboren gaineko topikoak plazara ekarri zituen berriro.

Azkunak bere jardun mediatiokoan bilbotarrismotxirene, begoñatar, operazale, burges, txikite-ro, monarkiko eta liberala hobetsi zuen. Bestelako ereduak har zitzakeen halaber, aurrekoa bezain bilbotarrak: langile giroko, rockzale, errepublikano, euskaltzale edo otxarkoagatar. Unamuno beti gogoan, Gabriel Aresti katakonbetan.

Bilbo eta bilbotarrak maite ditugu, haien gehiegikeria eta espantuekin. Kontua da Bilbo eta bilbotarrak Pirinioari baino Castro Urdiales eta Laredori begira daudela eta euskaltasuna hitzetan bai baina egintzetan lander eta “Athletic geuria” esatearekin aski zaie. Batzuei gustatu ala ez Bilbo euskal metropolia da eta Europan zernahi naziok (politiko zein

kultural) metropoli engaiatu bat edo batzuk behar du/ditu oinarri sendoez egituratuko bada. Metropoli engaiatu, adoretu eta eskuzabala.

Bilbo ausart eta kementsu sartu zen XX. mendean eta hainbat ideiarekin eta ekimenen sarbidea izan zen Euskal Herriarendako. Autonomiarekin batera Jaurritza Gasteizera eraman zuten eta

Donostiari “kultur hiriburu” balizko titulua eman zioten. Iruñea hiriburu historikoa beti. Baina dirua, bankuak eta benetako erabakiguneak Bilbon, beti Bilbon. Euskal metropolian. Bada, ongi dago Unamuno gogoan izatea eta munduari begira egotea, baina Aresti nor izan zen eta Kanpezu, Erriberri edo Zuberora, non dauden ahaztu gabe.

barrutik kanpora

Adostasunetik ekintzetara

Aurreko larunbatean Sakana 2020 Plan Estrategikoa onartua izan zen erabateko adostasunarekin eta orain dela 6 urte hasitako ibilbideari jarraipena eman zion. Lehenengo pausua gure bailarak bizi zuen egoera salatzea izan zen eta ondoren eragile sozial, ekonomiko eta politikoen artean komuneko diagnostikoa egitera esertzea. Bailararen errealitatearen irudia egin eta gero zer egin behar genuen adostu zen eta bete-

behar ohien artean zegoen planaren garapena. Orain arteko lana ez da makala izan, baina hemendik aurrerakoa ere itzela izango da.

Gure jarrera kritikoari jarraituz, prozesuaren inguruan sortzen zaizkigun kezka azalduko ditugu, beno kezka nagusia soilik, zeren bakarria izanik berebiziko garrantzia duela uste dugu. Larunbatean Sakanako eragile gehienek babestu zuten

Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak hilabete hauetan egindako lan izugarria. Alderdi politikoei, sindikatuak, eragile ekonomiko eta sozialek garapen plana onartu zuten eta hori pozgarria izanik hau da gure kezka. Ba al du gizarteak plan honen berri? Argi daukagu plana egiten ibili diren pertsonen lan izugarria egin dutela plana ezagutarazteko; batzarrak eta hitzal-diak herrietan zehar, ekarpenak

egiteko bideak erraztu dira, epea luzatu biztanleriaren parte-hartzea bermatzeko... Baina plana gizarteratzea lortu da? Ezetz uste dugu.

Sakanako gizartearen gehien-go apatiatik hurbil dagoela uste dugu, aspertua baino gehiago dago, luze doan krisialdi honek indarrak xahutu dizkio eta bitaminak eta proteinak behar ditu.

Plan estrategikoa eta berarekin batera doan leloa, adostasun-

etik ekintzara, pilula interesgarria izan daitekeela uste dugu. Prest gaude beste eragileekin batera kalera ateratzeko eta esfortzu berezi bat egiteko sakandarrak merezi eta behar duten animoen eta etorkizunarengatik borrokatzeko eta planak lagundu egingo duela ziur gaude. Kontatu gurekin.

Abian plataforma

hara zer dien

Edari energetikoen hegialak ematen dizkizute???

Hau da publizitateak saltzen duena, telebistan ikusi duguna, iragarkiek kontatzen digutena, baina hala da benetan?

Edari energetikoen ez dizute hegialak ematen ezta indarrik ere, gertatzen dena indar handiagoa duzula sentiarazten dizutela, kafeina pilo bat dutelako.

Bai, edari hauek kafeina pilo bat dute, lata bakoitzean gutxi gorabehera 3 katilukada kafe. Non dago arriskua? Inork ez ditu hartzen 4 kafe jarraian, bai-

na edari hauek jarraian hartzen dira, freskagarri moduan; ez dira freskagarriak, ordea; horregatik da hain erreza toxikatzea.

Hala ere, ez dago kafeinan bakarrik arazoa, lata bakoitzak dituen gainontzeko aditiboetan baizik.

Ikerketek diotenez, edari hauek haurrek eta nerabeek hartzen dituzte, zer hartzen duten benetan jakin gabe. Ezin dugu ahaztu lata batean kafe normal edo kola freskagarri baten kafeina

hirukoitza dagoela eta kantitate handian hartuz gero, zenbait sintoma azaldu daitezkeela: haserrekortasuna, umore aldaketak, erasokortasuna, irrika...

Baina gogoratu dezagun nola sortu ziren edari hauek eta zertarako.

Gehiegizko esfortzua ematen ziren momentuetarako pentsatu ziren, baina gaur egun beste helburu batekin erabiltzen hasiak dira; festa giroan eta alkoholarekin nahastuta.

Medikuek alarma gorria piztu dute praktika honen arriskuez jabetzeko, hau da, edari energetikoen alkoholarekin nahastearen moda. Gero eta gehiago dira urgentzietara doazen gazteak, ansietatea eta takikardiekin edari energetikoen alkoholarekin nahastuta edan ondoren.

Edari hauekin, beste gauza askorekin bezala, mitoak daude: “edari energetikoen odol-an dagoen alkohol kontzentrazio maila jaitxi egiten dutela

esaten dute”. Kafeinak ez dauka magia hori. Alkohola kanporatzeko modu bakarria denbora pasatzea da, eta badakigu gorputzak ordu bat behar duela alkohol unitate bat (adibidez bi garagardo) kanporatzeko. Beraz, edari hauek ez diezaiegun eman ez daukaten indarra, eta gogoratu gorputz bakarria dugula eta bakoitzari dagokigula ondo zaintzea!!

Prebentzio programak

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburuzordeta

49 IKASLE UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBETAN: Herenegun hasi eta gaur arte Sakanako 49 ikasle unibertsitatean sartzeko probak eginen dituzte: Aralarko

Mikel Donea institututik 43 ikasle (D ereduko 39 eta A-ko 4) eta Iruñean dagoen Biurdanatik D ereduko 6 ikasle.

sakanerria >>

>>

Kontu Ganbera: Mank-en finantza egoera ona da

Fiskalizatze erakundearen arabera Mank-en kontuek, oro har, ongi islatzen dituzte ondare eta finantza-egoera

Nafarroako Kontuen Ganberak Sakanako Mankomunitatearen 2012ko kontuak aztertu ditu pasa den asteartean aurkeztu zuen txostena Nafarroako Parlamentuan. Fiskalizazioaren eskaera Parlamentuak berak egin zuen, UPN taldeak eskatuta. Mank-en kontuak eta bere menpeko Sakanako Garapen Agentzia sozietatea aztertu dute.

Kontuen Ganberak dioenez, Mank-en 2012ko kontuek, oro har, ongi islatzen dituzte ondare eta finantza-egoera, eta aurrekontu likidazioa. "Dena den, finantziario-desbideratzeen kalkuluan huts batzuk daude, eta horren ondorioz diruzaintzako gerakina uste baino murriztagoa da". Bestalde, Kontu Ganberak esan du mankomunitatearen ondasun guztiak biltzen dituen zerrenda gaurkoturik ez dagoela. Bi salbuespen horiek kenduta, Kontu Ganberak ibarreko erakundearen kontuen aldeko iritzia du.

Legezko tasunari dagokionez, txostenak dio mankomunitatearen jardura finantzarioa indarrean dagoen legediaren arabera egiten dela. Kontu Ganberaren txostenak finantza egoera ere aztertu du. 2012an, diru-sarrerak 3,6 milioioak izan ziren. Gastuak, berriz, 3,3 milioioak. Gastuetan langileriarena (1,3 milioi) eta ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak (1,2 milioi) dira nagusiak. Diru-sarrerei dagokienez, tasa eta prezio publikoei esker 1,8 milioi bildu zuen, eta transferentzien bidez milioi eta erdi euro.

Mankomunitatearen finantza egoera ona da. Batetik, aurrekontu-defizitarik ez duelako eta likidezia duelako hurrengo ekitaldiatara gastuei aurre egiteko. 2012ko abenduaren amaieran milioi bat euroko zorra zuen, hamabi mailaguren artean banaturik, eta milioi erdi euro diruzaintzan, gastuei aurre egiteko.

SAKANA

Kateatuko gaituzte

Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko Gure Esku Dago ekimenak giza katea antolatuta du iganderako eta Sakanaren zati handi bat zeharkatuko du

Durango eta Iruñea artean 123 km daude eta igandean bi muturrak lotuko dituen giza katea osatuko da, eguerdian eta ordu erdiz. Erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lanean dagoen Gure Esku Dago herri ekimenak antolatuta du mobilizazioa. Igandean urte bat beteko da jendaurrean aurkeztu zela. Euskaldunon erabakitzeko eskubidearen alde herri aktibazioa eta atxikimendua lortzea du hasierako helburu. Horretarako, dinamikak aniztasuna eta askotarikotasuna printzipioak hartu ditu ikurtzat. Hau da, ezberdinen arteko gogokidetasuna bilatu dute.

Etzi

Dagoeneko 60.000 pertsonak erositako giza kateko metro bana. Eta izanen da azken orduan parte hartzea erabakikoduenik ere. Lizarrustitik sartu eta Aizkorbetik aterako da giza katea Sakanan, 30 bat km eginez. Sakandarrek haietako bi



Urdiaindarren modura beste herrietan ere bideoak egin dituzte.

beteko dituzte. 83 eta 84, Lizarragabengoako trenbide gaineko zubitik Arbizuko bidegurutzera arte bat eta beste Lakuntzako industrialdeko bidegurutzera arte. Aurrenekoan Aizkorbe, Errotz, Etxeberri, Egia-rrera, Etxarren, Ekai eta Satrustegikoeikin batera Irurtzundarraketa burundarrak izanen dira. Bigarrenean Urritzola, Izurdiaga, Zuhatzu, Hiriberri eta Ihabarkoekin batera, Irañeta eta Etxarri Aranatz bitarteko herritarrek izanen dira.

Kalejiran

Gertutasunagatik bi kalejira antolatuta dira elkarrekin dagokien tokira elkarrekin joateko. Igandean, 10:15ean Lakuntzako udaletxean jarri dute hitzordua. Uharteko erraldoiak eta buruhandi konpartsak, Lakuntza Kantuzek eta trikilariek lagunduta abiatuko da kalejira hori. Beste kalejira Etxarritik aterako da, 10:00etan abiatuko da errotondatik, 10:30ean Arbizuko kiroldegian egoteko. +www.guaixe.net

gertutik >>

Erkuden Barandiaran eta Osane Leitza

Bakaikuko Gure Esku Dago

Zer da erabakitzeko eskubidea? Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula pentsatzen dugu. Eta herri bezala erabakitzeko, herritarrok zeresan handia dugula uste dugu. Beste hark esan zuena: politikoen eskuetan uzteko garrantzitsuegia da hau. Zeresana badute. Baina herritarrok badugu zer egin eta zer esan.

Gizarte arlo guztietara zabaltzeko aldarria da hemen dagoena?

Hau mugatua da. Baina badira halako aldarriak beste arloetan

eskubide hori aldarrikatzen ari direnak: hondakinen kudeaketan, errepublikaren alde... Herritarra jabetzen ari da bere ahotsa eta berak zer pentsatzen duen garrantzitsua dela.

Zergatik zaudete batzordean lanean?

Zerbait egin beharra zegoela somatu genuen. Garagarriaren 8a gertu zegoen eta ibarrean ez zegoen mugimendurik.

Zer harrera izan du ekimenak?

Oso ona. Alkate ohiek bilera deialdia egin zuten eta adin guztietako 80 bat bakaikuar elkartu ziren. Hasieratik harrera ona izan du.

Egunerako oharrik?

Jende asko etorri behar duenez,

10:00etarako jende gehiena bere tokian kokatuta badago, hobe. Gosaria eraman nahi badute, hobe. Bestetik, Burunda aldetik giza katean parte hartzea joanen direnendako autobusak izanen dira. Bizikleta da ibilgailu egokiena eta dagokion metrora joan daiteke jendea. Autoekin ezin izanen da hori egin. Aparkatzeko prestatutako tokietan utzi behar ko dira.

Eta eguna pasa ondoren, zer?

Argi dago 8a abiapuntua dela. Baina udazkenean, berriz, indar hau guztia aprobetxatu egin behar da. Jende asko ekimen honetara biltzea, ezin da hori albo batera utzi, lanean jarraituko dugu.

+www.guaixe.net

Pintxoak

Goizetik eta giza katea pasa arte, Lizarragabengoako elkarrekin zabalik egonen da taberna gisa eta pintxoak eta bokatak ere izanen dituzte. Ateratako dirua isunak ordaintzeko izanen da.

Gero festa Etxarrin

Katea bukatu ondoren, hainbat herritan ospakizunak antolatuta ditu Gure Esku Dago ekimenak. Haietako bat Sakanan izanen da. Hasiera batean Arbizun aurreikusia bazegoen ere festa Etxarri Aranatzera lekualdatu da.

14:00etan Ekitaldi nagusia.

15:00etan Bazkaria*.

15:30ean Kontzertua: Xaiko, Vendetta eta Tximeleta. Haurren gunea, tailer eta puzgarriekin.

Oharra: barra, bokatak... izanen dira. *1000 pertsonarendako da, bi txandatan. Azken txartelak gaur Leku Ona Tabernan izanen dira salgai.

Zuzeneko kontakizuna

Guaixe astekariak eta Beleixe Irratiak (FM 107,3) beste 20 hedabiderekin batera, horien artean Altsasuko Hitzondo ataria, giza katearen zuzeneko jarraipena egiten dute. Beleixe Irratiak (FM 107,3), Info 7 Irratiak egiten duen saio berezia zabalduko du 10:00etatik aurrera. Saioa www.guaixe.net bidez ere entzun daiteke. Guaixe.net atarian jarraipen berezia egiten zaio ekimenari, baita sare sozialetan ere. Hedabideen ekimen bateraturekin argazkiak partekatu nahi dituzten herritarrek 647 319 747 whatsapp-era bidali ditzakete. Bestalde, Iturmendiko Eztanda Irratiak (FM 107,7) Irati Irratiarekin eta Eguzki Irratiarekin batera saio berezia egiten du igandean, 10:00etatik aurrera. Sareak zabalik izanen dituzte, baita 948 220 758 tlfnoa eta 645 442 420 whatsapp-a. Bestalde, Berriak igande arratsaldean edizio berezia argitaratuko du Etxarrin.

Erta Elizondo Arruabarrena
ARKITEKTOA
www.arkiterta.es
klik egin!

- Eraikuntza proiektuak
- Egituren diseinu eta kalkuloa
- Energi zertifikatuak
- Aholkularitza
- Barruko/kanpoko apainketa
- etab.

zugarreta 54, Etxarri Aranatz
948 460 444 687 060 787
arkiterta@outlook.es

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak
(Nafarroako Unibertsitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. N° 272/04

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaunak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

SAKANA

Utzugane, Sakanako garapenerako gune estrategikoa

Sozio-ekonomia eragileen arteko sinergiak sortu eta Sakanara eta kanpora begira erreferentziako gunea izan nahi du; Sakanako garapenerako motor garrantzitsua bihurtu nahi dute

Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) jasoa dagoen ekintzetako bat da garapena sustatuko duen erreferentziako espazio bat sortzea. Toki hori ibarreko sozio-ekonomia eragileen bilgune izateaz aparte, haien arteko sinergiak eta elkarlana sustatuko ditu. Aldi berean, espazio hori erreferentzia izan nahi du edozein negozio ideia garatu nahi duen edozein sakan-darrendako, edo ibarrera etorri nahi dutenendako. Toki hori Arbizuko Utzubar industrialdean dago, Cederna-Garalurren eraikinean. Izena ere badu: Utzugane, Sakanako Garapen Gunea.

SPE aurrera egiteko lanean

aritu den Sakantzen Sareko Jon Etxeberriak azaldu digunez, plana garatzen den neurrian garatuko da Utzugane. "Orain arte sozio-ekonomia agenteen (Sakanako Garapen Agentzia, Cederna-Garalur, Sakanako Enpresarien Elkar-tea, Sakantzen Sarea eta beste) arteko hartu-emanik, sinergiarik ez zegoen. Agente batzuen arteko proiektuak zeuden, baina ez zegoen loturak eta sinergiak sortuko lituzkeen iturririk". Planaren laguntzarekin dagoeneko loturak sortzen hasi direla esan digu Etxeberriak.

Gehi bat

Bertrand Russellen teoria Sakanarako metafora egokia izan daitekeela uste du Etxeberriak. 2+2=5 da teoria hori. Hau da, "eskualdean sozio-ekonomia agente bakoitz

bere kabuz, bere erara ibiltzen zen. Orain ikusten duguna da eragile horiek Utzuganen batuz gero emaitza bost dela. Gehi bat, hori da Utzugane, puntu estrategikoa".

Dugunarekin gure indar endogenoak sortu, gure esperientziekin gure ekintzaile sistema txikia sortu behar dugula uste dute planeko sustatzaileek. "Ziur gaude Sakanan talentua badagoela. Talentua sustatu behar da hemen, baita kanpoko hona erakarri ere". Erdigunea Utzuganen kokatu dute

Hala ere, zentroak funtzionatzeko lau sozio-ekonomia eragileak egotea baino gehiago beharko da: "bertako eta kanpoko eragileek erraztu behar ditugu metodologiak, esperientziak, prestakuntza... Espazio honetan edozein pertsonak bere ideia garatzeko



Bilera eta ikastaroetarako tokia dago, besteak beste, Utzuganen.

Erreferentzia

Utzugane tresnagisa erabiliko dela argitu digu Etxeberriak: "eskualdeko edozein agentek edo pertsonak ideia bat martxan jarri nahi badu edo enpresa batek zerbait behar badu, izan dezatela denek buruan espazio hau hemen dagoela. Ibarrerako garapen ekonomi-

korako gunea da".

Kanpora begira ere erreferentziako tokia izan nahi du Utzuganek. "Askotan gertatzen zen, ez soilik eskualde mailan, jendeak ez zekiela norajo. Bazekiten agenteak zeudela, baina ez non zeuden kokatuak ez ezer. Horretarako Sakanako Garapen Gunea puntu estrategikoa izanen da".

aukera izan behar du, esaterako, enpresa-mintegi bidez, lanerako

elkarlan espazioen bidez, prestakuntza ikastaroen bidez..."

>> Irurtzun

Hamaika arroz, hamaika mundu

Mank-ek Munduko Arrozak festa prestatu du biharko Irurtzongo Foru plazan eta bertan parte hartzeko deia egin die sakandarrei

Beste behin, Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak, Irurtzongo Udalaren, Itxipuru taldearen eta Irurtzongo Boluntario Taldearen laguntzarekin, Munduko Arrozak ekitaldia prestatu du biharko, Izan ere, arroz aleak berdinak dira, baina arroza prestatzeko modua aldatu egiten da herrialdeka. Modu berean, oinarri bera izanda ere, jaioterriaren arabera ezberdinak gara pertsonak. Eta horixe da Munduko Arrozak ekimenaren bidez Immigrazio Zerbitzuak adierazi nahi duena: "desberdinak gara, baina berdinak ere bai".

Horrela, arroz berbera banatuko zaie bihar Irurtzunen goizeko 10:00etan topo egingo duten jatorri ezberdineko sakandarrei, baina bakoitzak bere modura presta-



Mank-etik nahi duen guztia arroza egitera animatu dute. ARTXIBOA

tuko du. "Kultura ezberdinetatik datozen pertsonen arteko hurbiltasuna eta hartu-eman sustatu nahi dugu, kulturen arteko elkarbizitza, topaketa eta ezagutza erraztu" adierazi du Mank-eko immigrazio teknikari Bego Zestauk. Sukalde ezberdinetara hurbildu eta errezetak trukatzeko aukera paregabea eskainiko du

Munduko Arrozak ekitaldiak, arrozak sukaldatzeko sekretuak ikasteko parada. +www.guaixe.net

Informazio gehiago

Kultur arteko elkarbizitza topaketari buruz gehiago jakiteko: 648 070 710.

SAKANA

Mahai jokoen berora elkartuta

Asteartean jokaturako finalekin despeditu zen Nafarroako iparmendebaldeko adinekoen mahai jokoen txapelketaren seigarren edizioa. Musean Felix Ollok eta Juan Martinezek (Uharteko) Pedro Ariz eta J. M^a Zeberiori (Bakaiku) irabazizieten. Briskan Asun Aldazeta Pili Albiztur (Urdiain) Begoña Berastegieta M^a Luisa Araña (Arbizu) baino hobek izan ziren. Tute-



an, berriz, Ignazio Gorriti eta J. M. Larrañaga (Bakaiku) Antonio Urrozi eta M^a Luisa Lacalleri (Uharteko) nagusitu zitzaizkien. Azkenik, par-

txisean Begoña Boriak eta Antonia Rodriguezek (Irurtzun) Bernarda Velascori eta Ines Perianezi (Olazti) irabazi zieten. +www.guaixe.net

SAKANA

Gobernuaren enplegurako prestakuntza-ikastaroetako izen ematea zabalik

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) antolatu dituen enplegurako prestakuntza-ikastaroetan izena emateko epea astelehenean zabaldu zen. NEZek hiru ikastaro eskainiko ditu Altsasun: teknologia, gaztelerazko komunikazioa eta matematikak. Hirurak ere irailaren 23an hasiko dira. Kualifikazio-edo prestakuntza-maila txikia duten langabetuei zuzenduriko ikastaroak dira hiruak, NEZek eta Hezkuntza Departamentuarekin batera eskaintzen dituenak.

>> Irurtzun

Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntza deialdia

Irurtzongo Udalak egin duen deialdiak bi xede ditu. Alde batetik, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) diru-laguntza ematea Hirugarren Munduko herrialdeekin lankidetzaren proiektuak egiteko. Horrekin batera, irurtzundarrak sentsibilizatzeko eta parte-hartzea sustatzeko jarduerak sustatzea; bereziki, iparraren eta hegoaren arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoengatik. Deialdia irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko erakundeek eta elkartasunezko erakunde nafarrei zuzenduta dago eta 30 egun dituzte eskaerak aurkezteko.

Geroa Baik Gobernuari SPErekin bustitzeko eskatu dio

Sakanako Geroa Baik dei egindio Nafarroako Gobernuari Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) baliozkotzat jotzeko. Aldi berean, plana gauzatzeko aktiboki bustitzeko eskatu dio koalizioak gobernuari. Geroa Baik gogorazi dute sozio-ekonomia garapen arloko eskumenak gehienak gobernuarenak direla: "beraz, ezinbestekoa da gobernuak konpromiso instituzional eta ekonomikoa hartzea". Koalizioak "hausnarketa bateratutik" sortutako SPEren balioarengatik nabarmendu du. Adostutako agiri estrategikoa izanik, "emaitzagatik elkar zoriondu behar dugu".

>> Etxarri Aranatz



15 minutu behar izan zituen ateratzeko

Sekulako amuarraina

Halakorik Etxarri Aranatzeko sekula arrantzatuko gabek zirela nabarmendu digu Patxi Barandalla Iriartek. Ostiral goizean 4,576 kiloko eta 72 cm luzeko amuarraina ateratu zuen ibaitik. Hain handia izanik labeansartzen ez zenez, erdia sartu zuen gero jateko; gainontzekoa izoztu gorde zuen.

Sakanako plan estrategikoa onartuta

Sakanako Plan Estrategikoa onartuta, orain gauzatzera

Lau lantaldeak 2014-2015 aldirako lehentasunak markatzen hasi dira aste honetan. Lanpostu iraunkorrak sortzeko baldintzak

Sakanak 2020 urtera arteko bide-orria du. Hala onartu zuen Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak larunbatean. Arbizuko Utzugane Sakanako Garapen Gunean elkartutako guztiak aho batez eman zioten baiezkua Sakanako Plan Estrategikoari (SPE). Ergoien eta Ziordian udalek bilkurak egin zain, ibarreko gainontzeko udalek aho batez onartu dute plana. Hura www.sakanagaratzen.com orrian kontsultatu daiteke, "anbizio handiko plangintza da; helburu garrantzitsuak ditugu" laburbildu du Iker Manterolak, Sakanako Garapen Agenteak.

Behin plana onartuta bi dira segituan emanen diren urratsak. Batetik, haren edukiaren berri Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari emanen zaio. Baita herrialdeko gainontzeko eragilei aurkeztu ere. Sakanan plana aurrera ateratzeko elkarlana beharrezkoa izan eta izanen da baina herrialdeko erakunde elkarlana ere bilatuko da, plana gauzatu ahal izateko, bestelako laguntzak beharko baitira. "Bidea egin ahal konfiantza eta elkarlan esparruak zabaltzen joan beharko dugu, planarekin egin dugun moduan" esan digu Manterolak.

Azken urtean Sakanan egin den lana ez da udalen eskumena, Nafarroako Gobernuari dagokio. "Dugun egoera ikusirik plana egiteko konpromisoa hartu zuten udalek eta gainontzeko erakun-



Eragile ugari eman diote oniritzia urte batez landu den plan estrategikoari.



Planaren gauzatzea antzeztu zen onarpena eta gero.

Planaren kudeaketa eredua

SPE egiten aritu den Sak-in Kontsultingeko Joseba Garmendiak plana aurrera eramateko ezinbestekotzat jotzen: "borondateak bat etortzea, sareak sortzea. Horretarako, elkarlana, konfiantza, elkarrekotasuna, jarrera eraikitzaile eta positiboa. Hori guztia lortzeko planak gobernu eredu bat izan behar du". Hiru oinarri izanen ditu.

Motore dinamizatzailea

Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalur, elkarlanean, izanen dira SPEren dinamizatzaileak. Motorea martxan jarriko dute eta bestelako eragileen elkarlana bilatuko dute. "Elkarlanak denendako balioa sortzen duela eta krisi egoerari erantzuna emateko balio duela erakustea lortu behar da" zehaztu zuen Garmendiak. Arbizun dagoen Utzugane Sakanako Garapen Zentroa izanen da gunea.

Lan batzordea

Egiten diren pauso guztiak aztertuko ditu. Etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingen du; eta moldatu beharra badago hala egingen du. Horretarako SPEn hainbat adierazle zehaztu dituzte. Lan Batzordearen beste egitekoa izanen da dinamizatzaileei babesa ematea. Udal guztiak, Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta lantalde bakoitzeko bi pertsonak osatuko dute. Lanean nondik hasi jakiteko planean jasota lau arloetako bakoitzean dauden ekintzetako batzuei lehentasuna emanen diete. Horretarako kontuan izanen dituzte: dauden beharrak, dauden presak eta Sakanak dauzkan gaitasunak (teknikoak eta ekonomikoak).

Hausnarketa eta erabaki egiturak

Sakanako toki erakundeak, Nafarroakoak eta Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia izanen dira.

Datuak

Urte bat lanean.
4 lan talde.
8 dinamizatzaile.
51 parte-hartzaile.
4 esparru estrategiko.
13 ardatz.
54 lan ildo.
160 ekintza zehatz.
3 aurkezpen publiko.
50 baino gehiago ekarpen idatziz.
50 baino gehiago ekarpen ahoz.

deek", azaldu digu Manterolak. Nafarroako Gobernutik aurretik izandako harremanetan Sakanan plana adosteko eskatzen zuten gero haiek lagunduko zutela adieraziz.

Horrekin batera, Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalur SPE jasotako ekintzen artean lehentasunak markatzen hasi dira, 2014-2015 eperako lanak zehazteko. Horien berri aurki ematea espero da. Izan ere, aste honetan bertan lau lantaldeak horiek zehazteko lanak hasi baitituzte.



Lau esparruak

Sakanan krisi ekonomikogorria eta %23ko langabezi tasa baino handiago izanik, planaren helburu nagusia ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarritasunean oinarritutako enplegu sortzea da. Horretarako lau esparru estrategiko zehaztu dira: elikadura (lehen sektorea eta elikagaien industria), industria (industria eta enpresa-zerbitzuak), energia

(basogintza, energia berriztagarriak eta eraikuntza) eta turismoa (turismoaren sektorea). Esparru guztietan arlo transbertsal gisa hezkuntza eta merkataritza gehitu zaie. Esparru estrategiko guztietan elkarlan espazioak bilatuko dituzte. Enpresa eta eragile guztien bat etortzea sustatuko da jardura ekonomikoaren kokapen estrategikoa hobetzeko dinamiketara sar daitezten.

Elikadura

Tokiko ekoizpen sistemak artikulatu nahi dira: dauden baliabideei balioa emateko eta lehen sektoreko eta industriako enpresa ekoizleen artean sareak sortzeko (elkarlan, berrikuntza, merkaturatze edo produktu berria sortzeko espazioak garatzeko). Bestalde, kontsumitzaileen inplikazioa bilatuko da, horretarako auto-elikatuko den prozesuan sartzea bulkatuko da. Europatik sustatzen ari denekin bat, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoarekin zerikusia duen guztia jasotzen da.

Turismoa

Ibarreko baliabideak eta ondarea (kulturala, paisaia, arkitektonikoa, artistikoa eta abar) zein diren identifikatu, balioa eman eta probetxua ateratzea da lehenik aurreikusi dena. Bestetik, dauden agenteen artean elkarlan espazioak sortzea, disgregazio eta atomizazioarekin bukatzeko. Elkarrekin, hobe saldu eta eskaintza turistiko hobea eta gaitasun handiagokoa lortzen da.

Industria

Egun dauden enpresen kokapena hobetzea proposatzen du planak. Horretarako ibarreko enpresen gaitasun teknologikoak zein diren, dituzten konpetentziak eta beharrak ezagutuko dira. Horietan oinarrituta ekimen jarraitua sustatuko da. Horretaz aparte, enpresa berrien sorrera bulkatuko da ekintzailetasun motak sustatuz eta baliabideak zehaztuz. Enpresak erakartzeko planteamendua eginga dago. Azpiegituraketa irudia hobetzeko ekintzak ere jasoak daude SPEn.

Energia

Industriatik atera da sektore hori, eraikuntza eta basogintza arloekin zerikusia duelako. Dauden baliabide, agente eta enpresak zehaztu ondoren, energia berriztagarrien inguruan jardura ekonomikoa sortzea da asmoa. Europatik halako energiak eta energia eraginkortasuna sustatzen ari dira. Biomasa, dauden enpresak, haien arteko elkarlana edo berriak erakartzea.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Jesus Benito Gonzalez "Txutxin"

Ez jarraitu beldurrari,
ez esan beti, ez esan inoiz ez,
utzi libre denborari
bidea egiten.



Eguzkia-ko LABeko sindikatu saila



Maria Esther Arbizu Lizarraga

Betirako gure bihotzetan egonen zara.
Eskerrik asko, amiña.

Txus, Xorro, Ane, Isi, Eider eta Hegoi.

Etxarri Aranatzan, 2014ko ekainaren 4an.



Petra Berastegi Tay

I. urteurrena

Beti gogoan

Tristolkonekuek

Lizarraga-Ergoienan, 2014ko ekainaren 9an.

Maidier Jimenez Lezea

Ekainak 7, I. urteurrena

Oso denbora gutxi egon zinen
gurekin, nahikoa, ordea,
betirako zu maitatzeko,
horregatik gurekin
jarraitzen duzu.

Izugarri maite zaitugu, Maidier

Zure familia



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Maria Luisa Bengoetxea Garziandia

I. urteurrena

Maitasunaren emale nekazina.
Zurekin ikasitakoa
gure artean betiko geldituko da.

Eskerrik asko izeba Maria Luisa.

Pedron itxeko fameliye



Maria Luisa Bengoetxea Garziandia

Ekainak 9, I. urteurrena

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu ernai...

Memoriko meza, ekainaren 7an arratsaldeko
18:30ean Urdiaingo elizan egingen dugu.

Zure familia

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

relkarteag@gmail.com

Opatutakoak/ galdutakoak GALDUTAKOAK

Samsung telefono mugikorra. Galdu da
Etxarri Aranatzan. Opatu duenak, mesedez,
Guaixera eraman edo hots egin dezala, telefonoa
948 56 42 75.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozio-

JAIOTZAK

- **Ainere Igoa Flores**, maiatzaren 17an Etxarri Aranatzan.
- **Aroa Fernandez Garcia**, maiatzaren 24an Altsasun.
- **Julen Jaca Lopez de Aguilera**, maiatzaren 26an Olaztin.
- **Iker Rubio Areta**, maiatzaren 28an Lakuntzan.
- **Leire Razkin Piñas**, maiatzaren 30ean Lakuntzan.
- **Alain Agirre Baz**, maiatzaren 30ean Etxarri Aranatzan.
- **Intza Karasatorre Aiestaran**, maiatzaren 31n Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

- **Jose Migel Ramos Gallo eta Laura Flores Urriza**, maiatzaren 31n Arbizun.

Heriotzak

- **Victoria Lizarraga Aldaburu**, maiatzaren 28an Altsasun.
- **Jesus Benito Gonzalez**, maiatzaren 29an Altsasun.
- **Maria Carmen Olmedillo Goikoetxea**, maiatzaren 31n Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Begirale bat behar da. Urdiaingo Udan Euskaraz kanpainarako. Curriculum ekainaren 6a baino lehen Urdiaingo udalera eraman.

Aisialdiko monitoreak behar ditugu

Arbizuko festetarako. Arbizuko Udala. Curriculum aurkezteko epea udaletxean ekainaren 6a arte edo info@arbizu.info helbidera bidali.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Urdiaingo igerilekuak udan kudeatu. Nahi dituzten interesatu guztiak ekainaren 6an, ostira-

lean, arratsaldeko 20:00etan Urdiaingo Aitziber elkartearen aurkeztu beharko dira. Juntarekin harremanetan jartzeko eta informazioa eskatzeko ondoko eposta erabili behar da: aitziberelkar-tea@gmail.com

Urdiaingo Aitziber elkarteak taberna alokairuan uztaileko eta abuztuko jaietarako.

Enkante bidez emanen da, eta elkarteak edozein bazkidek azken aukera egiteko eskubidea izango du. Alokairuko hasierako salneurria 2.000 eurokoa da. Interesatuak Aitziber elkartera agertu beharko dute ekainaren 13an, 20:00etan. Kartazal itxian izango da bakoitzaren diru eskaintza. Kartazal itxian izango da bakoitzaren diru eskaintza. Erabakia egun horretan bertan hartuko da, 20:30ak aldera. Informazio gehiago: [nala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta \[formacion@aesakana.com\]\(mailto:formacion@aesakana.com\)](mailto:aitzibe-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago:

Oskia Lazkoz sakana. admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatuta ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

FUTBOLA

HAURREN TORNEOA ETXARRIN: Larunbatan, 10:00etan hasita, haurren mailako torneoa jokatuko da San Donato zelaian.

Etxarri, Izarra, Danok Bat, Osasuna, Erreal eta Real Union taldeak lehiatuko dira. Kamisetak eta beste zozketatuko dira.

Txirrindularitza

Armendariztarrak, zilarrezkoak

ITURMENDIN JOKATUTAKO NAFARROAKO ERLOJUPEKO TXAPELKETAN TXAPELDUNORDEAK IZAN DIRA ITURMENDIKO ANAI-ARREBAK

Sakandarrak Nafarroako Erlojupeko Txapelketan:

Kadeteak mutilak

1. Javier Fernandez	14:21
3. Asier Etxeberria (Q. Albeniz)	14:47
4. Hodei Zia (Q. Albeniz)	15:01
5. Xabier Maiza (I. Irabia)	15:02
11. Alex Unzilla (Q. Albeniz)	15:24
12. Gorka Arbizu (I. Irabia)	15:28
15. Eneko Vilar (Q. Albeniz)	15:36
21. Oihan Vinagre (Q. Albeniz)	15:51
22. Josu Gabirondo (Q. Albeniz)	15:51
28. Asier Juanez (Q. Albeniz)	16:07
40. Unai Zubiria (I. Irabia)	16:50
45. Raul Granado (Q. Albeniz)	17:03
59. Gorka Avella (I. Irabia)	19:07

Kadeteak neskak

1. Mirian Gardachal	15:57
2. Maialen Aramendia	16:26

Jubenilak mutilak

1. Diego Lopez	18:50
2. Eneko Aramendia (Q. Albeniz)	19:28
7. Ibai Azurmendi (Q. Albeniz)	20:46
13. Aritz Irigoien (Q. Albeniz)	21:27
24. Asier Ormazabal (Q. Albeniz)	22:16
30. Mikel Agerre (Q. Albeniz)	23:21

Jubenilak neskak

1. Itsaso Ahechu	24:20
------------------	-------

Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta, igandean II. Iturmendi Trofeoa jokatu zen, kadete-

Nafarroako txapeldunordeak



Nafarroako tropeleko onenak lehiatu ziren, tartean Iturmendiko Armendariz anaia-arrebak. Biko Nafarroako txapeldunordeak izan ziren, Maialen emakumezkoen kadeteetan eta Eneko gizonzkoen jubenetan.

en eta jubenilen mailako Nafarroako Erlojupeko Txapelketa. Kadeteek 10km-ko ibilbidea osatu zuten eta jubenilek 14 km-koa.

Kadeteetan 59 txirrindulari lehiatu ziren eta Javier Fernandez izan zen txapelduna (14:21), David Organbideri 4 segundoko aldea aterata. Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria 3.a izan zen (14:47), 26 segundora. Emakumezkoen

kadeteetan Mirian Gardachalek jantzi zuen Nafarroako txapeldunaren maillot gorria (15:57), Caf Transport Engineering talde gipuzkoarrean dabilen Maialen Aramendia txapeldunorde iturmendiarraren aurretik (16:26). Jubenilen mailan lehia bizia izan zuten Euskadiko erlojupeko txapelketa irabazi zuen Combustibles Galdeano taldeko Diego Lopezek eta Que-

so Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarrak, Euskadikoan bigarren sailkatu zenak. Nafarroakoan Euskadikoan geratu zena errepikatu zen, Lopezek jantzi baitzuen maillot gorria (18:50), Aramendiari 38 segundoko aldea aterata (19:28). Emakumezkoen maila jubenilean Reyno de Navarrako Itsaso Ahechu izan zen azkarrena (24:20), Gudane Araiz (24:58) eta Lucia Bastidaren aurretik (26:31).

Rural Kutxako Sole 3.a Nafarroako Itzulian

Lizarteko Antonio Pedrerok irabazi du Nafarroako Itzulia (7:47:31), baina sailkapena oso estua izan da. Jakub Kaczmarek izan da bigarrena, txapeldunaren denbora berarekin, eta Rural Kutxako Arnau Sole hirugarrena, 10 segundora. Rural Kutxako Odei Juango lakuntzarra 27.a izan da, 16:46ra, eta sprint berezien sailkapenean 2.a izan da.

Botxa



Iratxoko final laurdenak jokoan

Zortzi talde lehiatu dira Irurtzungo Iratxo Botxa txapelketan, bi multzotan. Hasierako ligaxka jokatu, A taldean Tirillas izan da onena (6 puntu), Lirainak (4 p.), Erik-Agustino-Xabier (2 p.) eta Alejandro-Guillermo-Iñigo (0 p.) taldeen aurretik. Aldiz, B multzoan Tximeleta eta Desesperados izan dira onenak, launa punturekin, Xabier-Felix-Migel (2 p.) eta AHTrick Ez (2 p.) taldeen aurretik. Asteburu honetan final laurdenak jokatuko dira.

Final laurdenak

Ostiralean

19:00etan: Tirillas - AHTrick Ez
20:00etan: Lirainak - Xabier-Migel-Felix
Larunbatean
20:00etan: Erik-Agustino-Xabier - Desesperados
21:00etan: Alejandro-Guillermo-Iñigo - Tximeleta

Pilota

Irurtzungo Txapelketa finalerdietan

Bakaikun, Espinal eta Mariezkurrena lanera

Irurtzungo Pilota Txapelketa-Lacturale Saria finalerdietan murgilduta dabil.

Partidak

Ostirala (18:00etan, Etxarren) Haurrak (finalerdia)
 Aizkorbe-Apezetxea (Umora Ona) / Telletxea-Unanue (Erreka) / Mata-Cuairan (Oberena) / Bastarrika-Gelbentzu (Lapke)

Kadeteak (finalerdia)

Garcia-Cordon (Oberena) / Antso-Eskiroz (Zugarraide) / Marcos-Salaberri (Titin) / Salaberria-Etxeberria (Erreka)

Astlehena (18:00etan, Irurtzun) Kadeteak (finalerdia)

Garcia-Cordon (Oberena) / Antso-Eskiroz (Zugarraide) / **Jubenilak (finalerdia)** / Laso-Martija (Huarte) / Bakaikoa-Medina (Erreka) / Espinal-Mariezkurrena (Irurtzun) / Okñena-Irurita (Oberena)

Atletismoa

Etxeberria azkarrena Ziordian

104 KORRIKALARIK OSATU ZUTEN I. ZIORDIKO HERRI KROSA, GEHIENAK SAKANDARRAK, ETA ANTONIO ETXEBERRIA ETA IZASKUN BEUNZA IZAN ZIREN TXAPELDUNAK

Sakandarrak I. Ziordiko Herri Krosean (6,8 km):

1. Antonio Etxeberria	22:05
4. Javi Moreno	23:50
5. Fco. Javier Gomez	24:41
6. Javier Borrega	24:46
7. Sergio Garcia de Eulate	24:50
8. Iban Gonzalez	24:56
9. Jorge Azanza	25:01
11. Patxi Cano	25:32
12. Julen Paniagua	26:06
13. Andoni Azanza	26:10
14. Isidro Asuraarrena	26:14
15. Urko Berdud	26:20
16. Mikel Lakuntza	26:42
18. Iker Flores	26:48
21. Iñaki Ganuza	27:14
22. Adur Senar	27:21
24. Fernando Ganuza	27:50
25. Santi Agirre	27:50

*SAILKAPEN OSOA IKUSTEKO: www.dantzalekusakana.com edo www.guaixe.net

Pozik daude Ziordia Running taldekideak. Izan ere, arrakastatsua izan da igandean jokatutako I. Ziordia Herri Lasterketa. Lehenik eta behin kategoriatxikiko lasterketak jokatu ziren, eta 12:00etan, proba nagusia.

110 korrikalari inguruk hartu zuten irteera eta horietatik 104 iritsi ziren helmugara. Korrikalari sakandarrak ziren gehienak, batzuk esperientzia handikoak, eta zaletu soilak besteak. Bakoi-



Giro polita izan zen igandean Ziordian. Bakaikun hartuko du lekukoa.

tza bere erritmoan, Ziordia inguratzeko zirkuituari 3 buelta eman eta 6,8 km osatu zituzten. Antonio Etxeberria korrikalari iruindar handia izan zen txapelduna (22:05), Marcos Gomez ia minutu bat aterata (23:02). Xabier Luisek osatu zuen podiuma (23:20). Emakumezkoetan, Izaskun Beunza olaztiarra izan zen txapelduna (29:52), Karmele Ormazabal (30:12) eta Mari Gwen Davies urdiaindarraren (31:17) aurretik. Sakandarrei dagokienez, Izaskun Beunza izan zen lehen emakumea, eta Javi Moreno altsasuarra

www.dantzalekusakana.com

Sailkapen osoa, baita kategoriatxikienetako lasterketenak ere.

lehen gizonzkoa, helmugara 4.a iritsita (23:50).

Kategoria txikikoei dagokienez, aurrebenjeminetan Aitor Monroy eta Leire Simon nagusi ziren, benjaminetan Oier Puyol eta Karla Lorea, kimuetan Lander Peral eta Naroa Barriola eta haurretan Unai Puyol eta Sara Lorea.

Proba bukaeran auzate ederra izan zen guztiendako eta hainbat produktu lote zozketatu ziren.

Aitzkozar lasterketa, hurrengo astean

Bakaikun jokatuko da, ekainaren 14an

Iturmendiko Aitzkozar elkartek eta Bakaikun Bakarrekoei elkarrekin Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin antolatuta, ekainaren 14an jokatuko da X. Aitzkozar herri lasterketa. Aurten Bakaikun hartuko du lasterketa. 17:00etan kategoriatxikikoen lasterketak abiatuko dira eta 18:30ean emango zaio irteera Bakaikun eta Iturmendi lotzen dituen proba nagusiari (8,1 km).

IZENA EMATEKO

Aurretik: www.dantzalekusakana.com, web gunean edo ondoko telefonotan: 948 562 034 edo 606 398 802.

Pilota

Ongay-Tabar, Berria Txapelketatik kanpo

Lemoako Arrese-Galarzaren kontra 22-18 galdu zuten

Asteburuan Berria Torneoko final laurdenak jokatu dira. Tartean, seniorretan, Irurtzun taldeko Ongay eta Tabarrek Lemoa taldeko Arrese eta Galarza izan zituzten aurkari. Partida oso lehiatua, 22-18 gailendu ziren Lemoakoak, Irurtzungo bikoitea txapelketatik kanpo utzita.

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralar: 11. edizioak berrikuntzak ekarriko ditu

IGANDEAN JOKATUKO DA LASTERKETA, 9:30EAN (24,7 KM). SANDINDEGITIK BEHARREAN ARANGUNeko PORTUTIK JAITSIKO DIRA LAKUNTZARA



Aurreko urtean euria izan zen nagusi eta korrikalariak zenbait bide eta xenda urez beteta topatu zituzten.

Zabalarde Mendi Klubak hainbat entitatekin laguntzarekin antolatuta, igandean 11. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa jokatu da. Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria. 183 korrikalari daude izena emanda. Aurreko urtean Imanol Goñi eta Alizia Olazabal izan ziren onenak 200 korrikalariaren artean.

Aranguneko portutik jaitsi
Aurten aldaketak eginduta Zabalarde, probaren azken zatian. Ia 4 km gutxiago izango ditu probak (28,5 km, 2.308 m desnibela). Korrikalariak 9:30ean abiatuko dira Lakuntzatik. Atazarko igoeratik Guardetxera igoko dira (1.035 m). Guardetxetik Albi eta Mugerdin barneratuko dira, Belokiko lepora joz (1.205 m)

eta handik zuzen Unako putzura ailegatuz, gero Hirumugarrietako tontorrera (1.431 m, Aralarko tontorrik altuena) iritsi arte. Ondoren Lakuntzarako bidea hartuko dute. Desako borda eta Pagomari (1.140 m) atzean utzita. Sandindegitik barrena jaitsi beharrean, Aranguneko portutik hartuko dute Lakuntzarako bidea.

Sariak

Sari banaketa 13:15ean hasikoda. Parte-hartzaile guztiek kamiseta tekniko bat eta produktu lote bana jasoko dute. Irabazleek, gizon eta emakumeak, 350 euro, txapela eta garaikurra jasoko dituzte. Ibilbidea aldatu denez, ez da errekor hobetzerik sarituko. Bigarrenek 120 euro eta garaikurra, eta hirugarrenek 80 euro eta garaikurra. Lau garrenek, bosgarrenek eta seigarrenek produktu lotea eskuratu-kodute. Lehen lakuntzarrek, lehen sakandarrek, lehen betanoek, lehen juniorrek eta lehen kadetek trofeoak jasoko dituzte.

www.lakuntza-aralar.com

Lasterketari buruzko informazio guztia.



Unzurrunzaga, Camille Extreme.

Tirapu eta Unzurrunzaga ongi Camille Extreme

375 korrikalariaren artean 46.a eta 53.a izan ziren

Izabako Camille Extreme mendi lasterketa ikusgarria ia 500 korrikalariak parte hartu zuten, eta horietatik 375 iritsi ziren helmugara. Espainiako Mendi Federazioak Camille-Extreme proba Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketa aukeratu zuen, eta Estatutik etorritako makina bat korrikalari lehiatu ziren 31,6 km eta 4.100 metroko desnibel pilatua duen proba ikusgarria osatzeko. Ezkaurre gaina (2.047 m) izan zen igo behar izan zen mendirik altuena.

Andaluziako selekzioko Zaid Ait Malek korrikalaria izan zen garai-lea (2:53:21), Hassan Ait Chaoukren probako errekorra 6:13 minututan hobetuz. Bigarrena Manuel Merillas izan zen (2:56:49), probako lehen espainiarra eta, hortaz, Espainiako txapelduna, eta hirugarrena Hassan Ait Chaou (2:57:58). Emakumezkoetan Laia Andreu izan zen txapelduna eta Espainiako txapelduna (3:35:20), Aitziber Ibarbiak zuen errekorra gaindituz (3:46:13). Laura Sola izan zen bigarrena (3:43:56). Sakandarrei dagokienez, lan txukunarekin zuten gure korrikalariak. Aralar Mendi taldeko Javier Tirapu 46.a sartu zen (3:23:50). Ander Unzurrunzaga etxarriarra 53.a iritsi zen (3:25:35), Alberto Razkin 190.a (4:11:41) eta Iraitz Senar 223.a (4:22:26). Antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriko daturik eman, eta, hortaz, gerta daiteke sakandarraren baten datua falta izatea.

EHko Mendi Erronka: Joxeja Maiza 10.a

LEITZAKO 65 KM-KO PROBA IKER KARRERAK (6:34:39) ETA LEIRE FERNANDEZEK (8:02:36) IRABAZI ZUTEN

Sakandarrek Euskal Herriko Mendi Erronkan (65 km)

1.	Iker Karrera	6:34:39
10.	Jose Jabier Maiza	7:36:52
22.	Evaristo Noveleta	7:51:04
26.	Jose Luis Beraza	7:58:01
31.	Vicente Beloki	8:01:34
36.	Juanjo Goikoetxea	8:03:01
46.	Adur Maiza	8:10:20
61.	Gorka Santesteban	8:18:37
121.	Alatz Agirre	8:55:12
159.	Patxi Rubio	9:14:25
221.	Jose Antonio Salgado	9:44:52
272.	Iñaki Lacalle	10:17:39
307.	Sergio Goñi	10:28:13
403.	Aitor Salinas	11:25:15

Larunbatean, goizeko 8:00etan abiatu zen Leitzatik Euskal Herriko Mendi Erronka (65 km, 3.500 metro-

ko desnibel positiboa). Proba Sakanatik pasatzen zen, Aralarko santutegia eta Aralarko beste hainbat paraje zoragarritatik. 442 korrikalari lortu zuten proba despeditza, Iker Karrera (6:34:39) espezialista amezketarra eta Leire Fernandez (8:02:36) errenteriarra buru zirela. 13 korrikalari sakandar iritsi ziren helmugara eta primerako lana egin zuten guztiek. Joxeja Maiza nabarmendu behar dugu, etxarriarra 10.a iritsi baitzen helmugara, 7 ordu eta erdi luze korrikan eman ondoren (7:36:52). Seis sakandar sailkatu ziren lehen 50 postuetan.



Beraza helmugara iristen.

Sokatira

Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa

Andra Mari txapeldunorde

Larunbatean despiditu zen Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa, Lesakan jokatu tako 4. eta azken jardunaldiarekin. Sakanako tiratzaileak kadeteen txapelketan lehiatu ziren (285 kilo). Lau jardunaldien ondoren, Ultzama sailkatu zen lehena (16 puntu), Andra Mari ikastola bigarrena (11,5 puntu), Berriozar hirugarrena (8,5 puntu) eta Putterri laugarrena (4 puntu). Ultzama eta Andra Mari sailkatu ziren final handirako, eta finalean Ultzama izan zen onena, txapela jantziz. Andra Mari kadeteen Nafarroako txapeldunordea dugu.

Saskibaloia



Saskibaloia Topaketa Altsasun

Hainbat neska-mutiko animatu ziren Sakanako Mankomunitateak larunbatean Altsasun antolatutako saskibaloia topaketan aritzera. Berriki despiditu diren Sakanako Saskibaloia Topaketan parte hartu duten taldeetako jokalariek ziren gehienak. Guztiak nahastuta, hiruko taldeak osatu zituzten entrenatzaileek, eta partidatxoak jokatu zituzten. Egun polita pasatzea eta saskibaloiarekin disfrutatzea zen helburua.

Irristaketa

Anne Lapuente, brontzezkoa

Espainiako Kimuen Kopako 1.000 m sprintean hirugarrena sailkatu zen

Asteburuan Espainiako kimuen mailako Irristaketa Kopa eta Espainiako haur eta jubenilen Irristaketa Txapelketa jokatu da Iruñeko Antoniutti zirkuituan. Bertan Sakana Irristaketa Taldeko 6 irristalari lehiatu ziren. Taldeko entrenatzaile Juli Acebesek aipatu digunez, maila oso ona eman zuten sakandarrek. Gainera, Anne Lapuente brontzezko



Anne Lapuente podiumean.

domina ekarri zuen Sakanara, kimuen mailako 1.000 m sprint proban hirugarrena sailkatu baitzen.

Sailkapen orokorrean, 62 irristalarietatik 5.a izan zen Lapuente. Zorionak guztiei!

Tenisa

Etorkizuneko tenislariak

5 MAILATAN JOKATU DA TENIS RUBOR-ALTSASU TALDEAK ANTOLATUTAKO TXAPELKETA

2014ko Tenis Txapelketa:

Benjaminak:

1. Igor Aldasoro (Urdiain).
2. Aritz Oiarbide (Etxarri). 5-3 eta 5-3.

Kimuak:

1. Xabier Igoa (Etxarri).
2. Oier Gastesi (Altsasu). 3-5, 5-3 eta 7-6.

Kategoria mistoa:

1. Jone Apaolaza (Urdiain).
2. Aitor Cantero (Altsasu). 6-2 eta 6-4.

Mutilen haurren maila:

1. Aritz Martínez de Ibarreta (Altsasu).
2. Xabier Claver (Altsasu). 6-2 eta 6-4.

Nesken haurren maila:

1. Andrea Aristu (Olazti).
2. Irune Grados (Altsasu). 6-2 eta 6-4.



Tenis Ruborreko Ricardo Cantero, sarituetako batzuekin.

Tenis Rubor taldeak antolatutako 2014ko tenis txapelketa berriki jokatu da. Txapelketa maiatzaren 16an hasi zen, eta maiatzaren 23an jokatzen ziren finalak.

Tenis Rubor taldeko arduradun Ricardo Canterok adierazi digunez "txapelketa boro-bila izan da, bai parte-hartzearen

aldetik eta baita jokalarien mailaren aldetik ere. Horregatik Tenis Rubor-Altsasu elkarteko arduradunak harro sentitzen gara". Hala-

www.tenisrubor.com

Taldekoko eta txapelketako informazio guztia.

ber, txapelketa aurrera eramateko jaso duten laguntza "ikaragarria" izan dela nabarmendu du.

2014ko tenis txapelketan aritu ziren guztiek dominak eta motxilak jaso zituzten opari, eta txapelkunek eta txapeldunordeek sariak eta erlojuak.

Eskaria

Tenis-Ruborreko arduradunek tenisean ibiltzeko azpiegitura falta dagoela adierazi dute beste behin. "Altsasuko Udalarri tenis pista eraikitzeko laguntza eskatzen diogu, Sakana osoan ezin baitugu tenisean jokatu".

Parapentea

Bihar parapente eguna Iturmendin

Sakanako Baiza Parapente Taldeak Sakanako parapente eguna antolatu du bihar. 60 parapente hegan ikusiko ditugu (Ikus 11 Galderak).

Triatloia



Udan, triatloia!

Mank-ek Triatloi Campusa antolatu du Altsasuko Zelandi kirolgunean, uztailearen 14tik 25era (8-16 urte)

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakanako Triatloi Taldearen eta Atabo S.L.-ren laguntzarekin 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendakotriatloi campusa antolatu du udarako. Campusa uztailearen 14tik 25era gauzatu da, Altsasuko Zelandi kiroldegian, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Sakanako Triatloi Taldekoko Aitor Mozo eta Urko Berdud izango dira triatloi campuseko begiraleak. Triatloiak atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza biltzen ditu, eta aipatu kirolaren teoria eta praktika landuko dute neska-mutikoekin.

IZENA EMATEA ZABALIK

Ekainaren 17ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Prezioa: 40 euro.

Enduro-BTT



Salto ikusgarriak ikusteko aukera izan zen.

Ikuskizun bikaina Arbizon

MARKEL URIARTE NAGUSITU ZEN I. ARBIZU ENDURO BTT PROBAN

Sakana Krew BTT taldeak antolatuta, igandean jokatu zen I. Arbizu Enduro BTT proba Arbizon. Proba honek Sakanan txirrindularitza modalitate berri batez gozatzeko aukera eman zuen. Arbizuko Aralar aldean, ia Mezaingo bordetara iritsita, lau jaitsiera-ibilbide prestatu zituzten antolatzailerak. Txirrindulariek denbora bat zuten jaitsietara horietara igotzeko eta gero, banaka-banaka aterata, lau jaitsiera horien denborak kronometratu zitzaizkien. Mota guztietako salto, aldapa,

Facebook (Sakana DH)

Lasterketako informazioa, argazkiak eta beste.

bihurgune eta zailtasunei egin zieten aurre proba osatu zuten 52 bikerrek. Azkarrena Aretxabale-tako Markel Uriarte izan zen (19:07). Bere atzetik sailkatu ziren Beñat Oronoz (19:47) eta Martxel Oronoz (19:53) hondarribitarrak.

Proban ez zen sakandarririk aritu, modalitate honetan ibiltzen diren sakandarrak probako antolaketa lanean murgilduta ibili zirelako.

Taekwondo

Altsasun bidea egiten

IRAKASLE BERRIAREKIN 24 IKASLEK IKASTURTEA DESPEDITZEAR DUTE

Duela bi urte Altsasuko Taekwondo eskolan irakasle aldaketa izan zen eta Gerardo Montero Rivera gaztea hasi zen klaseak ematen. Bigarren ikasturtea despeditzera doa eta esan digunez, pozik dago ikasleekin eta haiek berarekin ere bai. Ikasturte honetan aldaketa handia izan da eta ikasleak asko inplikatu dira: "dagokiena baino gehiago eta dena ikasten ari dira batzuk. Hori niretako saria da".

Gauregun 24 ikasle ditu klubak, 19 urte bitartekoak eta gerriko txuritik gerriko beltzeko 2. dam-era arteko maila dutenak. Astearte eta ostegun arratsaldetan dituzte klaseak. Heldu den ikasturtean 18:00etan edo hasiko da txikien klasea eta ordu bat geroago helduak.

Monterok aitortu digu ikasleak "juxtu antza" daudela: "niri jendez betetako klaseak izatea gustatzen zait, eta oso dinamikoa izatea. 16-30 ikasle arteko taldeekin ez dut lan

egiteko inolako arazorik. Klase kolektibo dinamikoa egin dezakezu, ahaleginu daitezela, garapen fisikoa izan dezatela. Ni klasean barna mugitzen naiz, bakoitzari gauza zehatzak esanez eta zuzenketak eginez".

Lehiatu edo ez

Irakasleak argi dute taekwondo lehiatu daitezkeen kirol bat dela, "baina ez da beharrezkoa jendeak lehiatzea. Ikasleen, gurasoen eta gure artean lehiatzea ona den edo ez aztertu eta adostasuna lortzen dugu. Guk Altsasukoen moduko klaseak eta lehiaketak asko bereizten ditugu". Irakasleak azaldu digunez, lehiaketa eta klasea estrapolatzen saiatzen da.

Nafarroako Kirol Jolasetan borrokan lau parte-hartzaile izan dituzte, haietako bi estreinatuko. Emaitzarekin oso pozik dago Montero, laurak finalera iritsi zirelako. Urrezko eta zilarrezko bina domi-

Ikasturte berrirako animatu



Prestatzailea heldu den ikasturtera begira jarri da. Punse edo teknika lehiaketan heldu den urtean bizpahiru aritzea nahi luke. "Borroka prestatzeaz guztiz bestelako lana da punsea prestatzea. Borroka dinamikoagoa da eta haiendako errazagoa da. Teknika lana batez ere buru lana da, behin eta berriz errepikatzea. Teknika lehiatzen denak burua oso ongi jantzia izan behar du". Borrokako lehiari dagokionez gutxienez sei parte-hartzaile izatea nahi luke, eta dagoeneko heldu den urterako prestatzen ari dira. Irailan egiten dut denboraldi planteamendua. Aurreko urtean hartutako maila kontuan hartuz Montero saiatuko da arlo guztietan hobetu dezatela: teknikoan, taktikoan eta, batez ere, fisikoan. "Denboraldiak prestatzerakoan guztiaren ziklo handi bat egiten dugu. Gero zatitan banatzen dugu, lehiaketen arabera, bakarren batek lehiatzen duen edo azterketa-ren bat prestatu behar bada. Horiak klase prestatetan eragiten dute".

na lortu zituzten. Ane Gilek nesken haurren mailan zilarra eskuratu zuen. Pisu eta adin bereko bi mutil haurren mailan finalera iritsi ziren: Joel Agirretxe, urrea, eta Patxi Bergera, zilarra. Gainera, taldeko Nafarroako hirugarren sailkatu ziren. Nesken junior mailan urrezko domi-

na lortu zuen Lidia Martinek. Nesketan taldeko ere hirugarren izan zen Altsasu. Martin ere Espainiako Nazioarteko Irekian parte hartu zuen eta final laurdenetaraino iritsi zen. Bihar 21 urtez azpiko eta promozio lehiaketak jokatu dituzte Lidiak eta Oihanek.

Futbol 7



Txapelketako kartela.

Urdiaingo Futbol 7 Txapelketa, udako aukera

Txapelketa ekainaren 27tik abuztuaren 14ra arte jokatu da

Aurreko urteko esperientzia errepikatuz, Urdiaingo Gazte Asanbladak Futbol 7 Txapelketa antolatu du udarako. Txapelketa ekainaren 27an abiatuko da eta final handia abuztuaren 14an jokatu da, Urdiaingo abuztuko festetan. Partidak asteburutan jokatu dira, Urdiaingo futbol zelaietan.

IZENA EMATEA ZABALIK

Ekainaren 22ra arte, ondoko telefonoetara deituz edo WhatsAppa bidaliz: 610 061 026 / 608 408 762. Bikote bakoitzak 60 euro.

Mendi txirrindularitza

Altsasu, bikerren topaleku

ALTSASUKO BTT ZEHARKALDIAREN 19. EDIZIOA IZANEN DA IGANDEAN. ADANIARA IGOKO DIRA LEHENENGOZ

Burunda Txirrindularitza Taldeko Mendi Txirrindularitza Sailak dena prest dauka igandeko 19. Altsasu BTT edo Mendi Txirrindularitza Zeharkaldirako. Antolakuntza 800-1.000 txirrindulari hartzeko prest dago. Aurrez 395 pertsonak bete dute inskripzioa www.clubciclistaburunda.com web orrian, eta eguraldiaren arabera egunean bertan gehiago edo gutxiago izanen dira. Eguraldi dexentea iragarri dutenez, inskripzio ugari espero dira.

Izena emateko

Igandean, 7:45etik 9:00etara, Altsasuko Gure Etxean (Federatuek 21 euro eta federatu gabekoek 25).

Altsasuko BTT zeharkaldia proba ez-lehiakorra da. Euskal Herriko egutegian finkatuta dagoen proba da, Nafarroako probetan zaharrena. Helburuagure eskualdea erakustea da, gure paisaiekin gozatzea eta bizikletarekin disfrutatzea.

Opariak

Izena ematen duten lehen 600 txirrindulariek kirol kamiseta teknikoak, Laket txistorra, Katealde pateak eta Kaiku produktua. Kopuru horretatik gorakoek opari sari batzuk jasoko dituzte. Horretaz gain, hainbat sari zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean.

Antolatzaileek Altsasu BTT zeharkaldian parte-hartzera animatzen dute, "ibilbidea ederra delako, pribilegiatua". Dena ongi ateratzeko egunean bertan 80 pertsonak egingo dute lan.

Adaniara lehenengoz



ANA VILCHES

Txirrindulariak goizeko 9:00etan aterako dira Altsasuko plazatik, eta orain arte inoiz pasatu gabeko eremuetara helduko dira, ibilbidearen zati batzuk berriro dituztelako. Hasieran Basoititik eta Basomuturretik buelta bat emango dute, Garzia Ximenez kalean atera eta Geltoki auzorantz jotzeko. Gero Amezti, Zapardi eta Orebeko harrobira joko dute, Sozarretara heltzeko. Torre Txikira igotzen, bueltabaxo bat emango dute, Ulaiarreko merenderoan prestatu duten homidura gunean atsedendaldia hartzeko. Ondoren iritsiko da probaren berritasun nagusia, Adaniara igoko baitira lehenengoz. Hori izango da eremurik gogorra. Xendetatik San Pedrorra iritsiko dira, eta La Ponderosaraino joko dute, Urdiaingo igerilekuan jarritako homidura likidura heltzeko. Segidan, Urdiaingo eta Iturmendiko xendetatik barna ibiliko dira, buelta hartu eta Basoititik Altsasuko plazara heltzeko. "Zailtasunaren aldetik, aurtengoa edizioerik gogorrenetakoa izango da, maila ertain-altukoa. Biker azkarrenek 2 ordu eta laurden beharko dituzte, eta gehienek 3 ordu" adierazi digu probako arduradun Julian Claverrek.

Aizkora

Urrezkoa nahi du

Bihar, 19:00etan, Urrezko Aizkorako final handia jokatu du Azepeitian Atutxa eta Rekondorekin

Urrezko Banakako Eusko Label Txapelketako final handia bihar, larunbatean, jokatu da, Azepeitiko Izarraitz kiroldegian. 3 final egonen dira jokoan. Gaztetxoenen mailan Iker Vicentek eta Julen Larreak jokatu dute txapela; Gazteen mailan, aldiz, Ander Erasunek, Ruben Saralegik eta Eneko Otañok jantzi nahi dute txapela; eta, Urrezko mailako final handian Floren Nazabalek, Aitzol Atutxa II.ak eta Jon Rekondok lehia estua izango dute Urrezko Aizkora lortzeko.

Nahiz eta Floren Nazabal faborito nagusia izan, katedrak aspaldiko finalik estuenetakoa espero du, Aitzol Atutxa eta Jon Rekondok maila bikaina eman baitute txapelketan, bereziki Atutxak. Hala ere, aurreko urteko titulua berriro nahi du atzera ere etxarriarrak eta bere 9. txapela izango



Nazabalek 9. txapela jantzi nahi luke.

litzatekeena jantzi, eta dirabaztera aterako da. Baina kontu handia izan beharko du, Atutxarekin bereziki.

Lana, ondokoa: 45 ontzakoak zainen kolpe gutxiagotan moztu; 45 ontzakoak erlojuz kontra erdibitu; 60 ontzakoak zutik jarrita ebaki; 60 ontzakoak ahalik eta azkarren erdibitu; kana-erdikoa zutik eta kana-erdikoa etzanda moztu; eta 4 kana-erdiko eta 2 60 ontzako ebakitzea.

Frontenisa

Emakumeak erraketak astintzera

ASTEBURUAN HASIKO DA SAKANAKO EMAKUMEEN VII. FRONTENIS TXAPELKETA

Ostiralean hasi eta uztailearen 4an despedituko da Sakanako Mankomunitateak Etxarri Aranazko Gure Pilota klubarekin antolatutako Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketa. 8 bikote

lehiatuko dira, eta hiru jardunaldi jokatu ondoren, ekainaren 27an finalerdiak eta uztailearen 4an final handiak jokatu dituzte. Partidak Etxarri Aranazko frontoian jokatuko dira.

Lehen jardunaldia

Ostiralean, Etxarri
19:00etan: Edurne-Vanesa / Leo-Maider
19:20etan: Yanira-Saioa / Jone-Amair
19:40etan: Laura-Leire / Andrea-Izar
20:00etan: Garazi-Lohitzune / Uxue-Irati



Aurreko sari emate ekitaldi bat.

BIKAIN
 GARAJEA, S.A.L.
 948 460 037 Arbizu
 948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
 Elektrizitatea
 Txapa
 Margotzea**

30€ zona berriko

no+vello
 fotodepilación con tarifa plana

No+Vello Beasain
 Dolare kalea 1 · BEASAIN
 943 041 715
 beasain@nomasvello.com

Ilea, nahi duenarentzat!



Nonerabili

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN

% 10eko deskontua matrakulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI ARANATZ

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinatuekin kafea edo txupitua doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioretan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai





Kantari goaz

Aparteko giroa izanzen larunbatean Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Handian. Burlatako kultur etxeok aretoa ia bete egin zuten kantu-zaleek. 16 parte-hartzaile, hauda, 134 kantari pasa ziren eszenatik, hasierako ilusioagatik eta emozioagatik urduritasunak gainezka egin ziren. Haien emanaldietan hainbat estilotako kantuak eskaini zituzten, batzuk musika tresnez lagunduta, eta gehien gehienak jantzi eta koreografia bitxiekin osatuta. Par-

te-hartzaile guztiak oroigarri bana jaso dute.

Haien artean Lakuntzako eskolako bi talde eta San Saastin musika eskolako talde batekin batera Aralarko Mikel Donea institutuko beste talde bat ere aritu zen. Lakuntzar bat izan zen ere aurkezleetako bat. Amaia Dominguez antolatzailea pozik zegoen jendearen erantzunarekin baita emanaldiaren aberastasunagatik ere. Berak jakinarazi digu jaialdia Xaloea Telebistak grabatu zuela.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Abdikazioa

Garai bitxietan bizi gara. Txikia nintzenean azken orduko albiste baten berri izateko irratia behar zenuen alboan, telebistak orduak behar zituelako irudiak eskuratu, editatu eta emateko. Askotan onena zen hurrengo eguneko egunkariari itxoitea, albiste ondo irakurri eta horren inguruan eztabaidatzeko. Gogoan ere badut institutuko garaietan nola goizero entzuten nuen Mariano Ferrer, prentsa-ko albisteak irakurri eta aipatzen. Egunkariak markatzen zuten agenda, irratiek iritzia eta telebistek ematen ziguten irudia.

Ez da hainbeste denbora igaro eta egoera hau hankaz gora dago. Astelehena, 9:55. Twitterren irakurtzen dut Rajoyk urgentziatzeko adierazpen instituzionala egin behar zuela 10:30ean. Kotxea hartu eta lanera nindoala aipamenik ez irratian. 10:20, semaforo batean geldirik nagoela mezu bat iristen zait telefonora: Twitterren jarraitzen ditudan 16 pertsonen NAIZEN txio baten bertsioa egin dute. Begiratu eta El Periodicoren arabera 10:30ean Rajoyk Juan Carlos I.a Espainiakoaren abdikazioa iragarriko zuela zioen. 10:28, lankide bat kotxean hartu eta bidetari ekiten diogu, ez bainuen goiza bulegoan pasa behar. "Erregeak abdikatu du". "Noiz?". "Bi minutu barru". 10:30, Irratian ezer berezirik ez, 10:32, zuzeneko konexioa, garrantzitsua den albiste eta 4 minutu lehenago bagenekiena.

11:10. EITBko unitate mobila Eibarren dago (kasualitatez) eta herritarrei galdetzen die ea zer iruditzen zaien Espainiako erregearen abdikazioa. Bankuetan dauden jubilatuek dira. Inork ez du ezer ere entzun, normala denez. Kazetariak harrিতa, jendeak ez dakielako zein den "eguneko albiste". 35 minutu igaro dira albiste publikoa denetik, eta asko Twitter erabiltzera ohituta bagaude ere, jendartean gutxiengo gara.

11:12. Lehen argazki montajea iritsi zait Whatsapp bidez. Asteartea. Idatzizko egunkarietan albistearen berri eman da. Ostirala. Guaixen nire errelexioa irakurri duzu.

Hiru dantza estilo elkarrekin



Gaur, 18:00etan Iortia kultur gunean Altsasuko Dantza Topaketa

Altsasun dantza ikasteko dauden aukeren berri izan nahi duenak gaur aukera aparta du. Izan ere, euskal dantzetako, dantza garaikideko eta gimnasia erritmikoko ikasleek ikuskizuna eskainiko

dute. Iortia kultur guneko eszenatik talde bakoitzeko ikasleak pasako dira euren koreografiaren lagin bat erakusteko eta Altsasun ikasi daitekeena erakusteko. Talde bakoitza 20 minutuz ariko da. Gimnasia erritmikoko ikasle helduenek parte hartuko dute saioan, haiek ere dantzan.



Dantzari txikiak elkarrekin Etxarrin



Orritz, Galtz Orratz, Elai Alai eta Etorkizuna dantza taldeetako dantzariak elkarrekin aritu ziren larunbatean

Euskal Festak Sakanako Dantzari Txiki eguna hartu zuen. Herrian barnako kalejira baten ondoren ehun dantzari txiki bakoitzak Mikel Arregi plazan, Bureñako plazan eta herriko plazan erakutsi zuten dantzan duten trebezia. Irurtzungo Orritz, Lakuntzako Galtz Orratz, Lakuntzako Elai Alai eta Etxarri Aranazko eta Altsasuko Etorkizuna dantza taldeetako kideak izan ziren ospakizuneko protagonistak.

ALOKATZEKO ETXEA 260e/hilero

www.etxefabrika.com

INFORMAZITEZ etxefabrika@outlook.es

634 722 994

zure independentzia nahi?

ebxe ekonomikoak BIZITZEKO PREST!

APARTAMENTUAK sukaldea egongela komuna logela ALTZARIZ HORNITUTA

Etxarri Aranatz

PPSOE,

ETB digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea



Lanak aurkeztu daitezke Etxarriko festetako kartel lehiaketan

Garilaren 4ra arte aurkeztu daitezke lanak udaletxean.

Maila bakarra izanen da

Etxarri Aranazko festak iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak. Egile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ditzake, beti ere originalak. Kartelak sortzeko edozein teknika erabil liteke baina A2 neurria (420 mm x 594 mm) izan beharko dute. Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Txikien kasuan, ikastetxeetatik landuko da lehiaketa. Kartel irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu.



Udazkenean kamara atzera bueltatuko da Taberna

Lastailean eta azaroan *El contenido del silencio* lana filmatuko du Helena Tabernak. Lucia Etxeberriaren izen bereko eleberraren moldaketa librea izanen da altsasuarrak pantailara eramanen duena. Berak, Andres Martorellek eta Nacho Lopezek egokitu dute gidoia. Sekta batean sartutako arreba desagertu da eta anaia haren bila hasiko da, arrebaren lagun onenaren laguntzaz.

Kanaria Handian, Bilbon, Zarautzen eta agian Nafarroan filmatuko du altsasuarrak. Filmak 2,5 milioi euroko aurrekontua du eta Lamia eta Zentropa Berlin ekoizte-etxeren arteko elkarlana izanen da. TVEk eta ETBk ere parte hartuko dute.

Literatura IGOtzeko gonbitea

Orain arteko parte-hartzaileen artean liburuak erosteko 30 euroko txartelak zozketatu dira

Liburuaren egunetik hilaren akaberara arte martxan da *Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO)* kanpaina. Euskaltzaleen topaguneak (Aizpea, Kima eta Berririk) eta Sakanako Mankomunitateak bulkatu dute euskarazko liburuaren irakurketa sustatzeko kanpaina. Orain arte kanpainak harrera ona izan duela adierazi dute antolatzaileek eta hurrengo asteetan liburuaz gozatzera gonbidatu dute.

Sarituak

Euskarazko irakurketa sustatzeko kanpaina orain arte parte hartu dutenen guztien artean zozketa egin da: liburuak erosteko 30 euroko lau txeke. Susana Pelegrin (Arbizu), Marian Mendiola (Etxarri Aranatz), Maider Betelu (Urdiain) eta Izaro Ramos (Altsasu) izan dira sarituak.

IGO kanpaina parte hartzeko, lehen lehenik, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiako edo Ziordiko liburutegietatik pasa beharko da. Liburu bat aukeratu, irakurritz gozatu eta liburutegira bueltatzeko



an dozena erdi galdera erraz dituen galdetegi bat erantzun behar da. Erantzunak idatziz ondoren, liburu zainak liburu-dendan liburuak erosteko deskontu txartela eman

nen du. %25ekoa da, baina liburuaren %50eko deskontua lortuko dute euskara talde edo fundazioetako kideek. Liburu norbaiti edo euren buruari oparitu diezaiokete.

Gero Arteren lehiaketan 25 lan



Mikel Okiñenak Iruñeko Arrosadia auzoan (Gelbenzu 13-Remigio Mugika 2 kaleak) Gero Arte mintegia du eta haren bidez arte plastikoaren lehiaketa antolatu du. 25 artistek eman dute izena. Garagarzaroan zehar haien lanak Gero Arteren ikusgai izanen dira. Akaberan Alfonso Askunze, Mari Jose Rekalde, eta Mikel Okiñenak osatutako epaimahaia bildu eta hiru sari banatuko ditu. Emandako botoen kontaketaekin 4. saria emanen dute. Sakandarrak daude lehiaketa-

ra aurkeztu diren artean. Miren Ustarozek alabastroz egindako eskultura bat aurkeztu du. Mikel Lasarte Artolak egurrean egindako *Lotzen gaituzten pentamenduetatik ihesi* taila aurkeztu du. Helena Santanok, aldiz, soldatutako hagaxka eta arpilera zingindako eskultura du ikusgai.



Sariak

1. 400 euro, bi pertsonarentako bazkaria eta hilabeteko ikastaroa Gero Arte tailerlean.
2. 300 euro, bi pertsonarentako bazkaria eta hilabeteko ikastaroa Gero Arte tailerlean.

3. 200 euro, bi pertsonarentako bazkaria eta hilabeteko ikastaroa Gero Arte tailerlean.

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 • Altsasu

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 4 TXEKEREN ZOZKETAKO IRABAZLEAK:
irakurri, gozatu eta oparitu
Apirilaren 23tik ekainaren 30era
Izaro Ramos (Altsasu)
Maider Betelu (Urdiain)
Marian Mendiola (Etxarri Aranatz)
Susana Pelegrin (Arbizu)
Mank
sakanak

www.topagunea.org/irakurri

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 13%	euria: 25%	euria: 30%	euria: 30%
Min: 15 Max: 27	Min: 16 Max: 26	Min: 12 Max: 25	Min: 12 Max: 25	Min: 14 Max: 23	Min: 12 Max: 21	Min: 12 Max: 22

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	22	4.8	3.8
Altsasu	21	6	14.4
Aralar	15.2	3.4	20.7
Urbasa	18	7	10.3

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
13	19	27	5

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

belexe guaixe

Garagarrileko bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtaketa Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
2. Artazako kanpinean %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Aitor Garcia

Baiza Parapente Taldea

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



Alberto Martinez, Aitor Garcia eta Iai Arratibel. Osorik: www.guaixe.net-en.

- 1. Sakanako Baiza parapente taldea noiz sortu zen?**

Duela 25 urte. Urbasako bargan, Etxarriko maiatzaren ondoan dagoen dermio batetik dator izena. Magalhandibatda, eta bere garaian handik egiten ziren hegaldiak. Orduan korrika gehiago egin behar zen hegaldia atera ahal izateko. Ordutik asko aldatu da gauza.
- 2. Orain nondik abiatzen dituzue hegaldiak?**

Egungo parapenteekin ez duzu behar halako karrerakegitea hegaldiak egiteko. Ipar haizearekin Santa Marinatik abiatzen gara, eta hegoarekin San Migeletik. Gero amestutako lekua dago, Beriain izan daitekeena. Baina gutxi egin dute hegan bertatik, goraino oinez joan behar zarelako.
- 3. Baizaren 25. urteurrenean Altsasun hitzaldia eta parapente erakustaldia egin zenuten.**

Saiatzera herritarrei kirol hau gerturatzen, ez delako kirol batedozein momentutan gertutik ikusi daitekeena. Iortian parapenteak jarri genituen jendeak gertutik ikusteko, esertzeko, hitzaldiak ere emanditugu, bideoak... finean jendea jabetzeko kirol hau gertu dagoela eta erabiltzea dutela. Hegan egitea ez da zaila, erraza da, eta denondako irekia den ekintza da.
- 4. Edozein poltsikorako?**

Baietz uste dut. Kirol guztiek dute beren gastua. Ez da garestia, hartzen duzun ekipoa erabiltzen duzun urte guztietan zehar amortizatzen duzulako. Gainera, 2. eskuko materiala har dezakezu edo norbaitek utzi ahal dizu.
- 5. Parapentean hasi nahi duenak**

- zer egin dezake? Zuengana jo?**
- Guregana gerturatuda dila. Nik ez nuen maila nahikoa nire kabuz bakarrik ibiltzeko. Taldeko bloga, (<http://sakanaparapente.blogspot.com.es>), facebook (Sakana Parapente) eta twitter (sakanaparapente) bidez Baizakoak ezagutu nituen, deitu nien eta eskuzabalik hartu induten. Egun taldean nago.
- 6. Noiz dago bat prest hegan egiteko?**
- Beti dago egun seinalatu hori, hegan egitera bakarrik aterako zarena. Jende ezaguna egongo da gertu zuri laguntzen... baina egun hori bakarrik pasatu behar duzu. Parapentean hasi aurretik, Baizak eskaintzen duen bi plaza horietako batean probatzea komeni da, konturatzeko zer sentazio sentitzen den. Hor ikusten duzu benetan gustatzen zaizun edo ez. Pentsatzen da goian sekulako tentsioarekin egon behar dela bat, baina kontrakoa da. Kirol lasaia da. Zu lasai-lasai zaudete, zure sentazioekin... merezi du, eta jendea gomendatzen diot behintzat behin proba dezala bi plaza batean hegan egiten.
- 7. Kirol arriskutsua da?**
- Kirol guztiek dute beren arrisku puntua eta gehiago konfiantza hartzen duzunean. Kotxean ibiltzea bezala. Baina besterik gabe. Saiatzera gara beti taldean ibiltzen. Ez da komeni bakarrik joatea, zerbait gertatzen bazaizu ez baitizu inork lagunduko.
- 8. Bihar, larunbatean, parapente eguna antolatu du Baizak Iturmendin. Zergatik?**
- Urtero egin izan da topaketa hau. Asmoa da bertako eta kanpoko jendea elkartu eta egun zoragarri bat

- pasatzea hegan egiten. Horretaz gain, parapente mundua herriari erakutsi nahi diogu, kanpoko jendeak Sakana ezagutu dezala, gure paisajea, landetxeak eta beste.
- 9. Zuek ere beste tokietako topaketetan aritzen zarete?**
- Noizean behin mugitzen gara. Baina gehienbat hemen ibiltzen gara. Etxean daukaguna edukita, zaila da kanpora ateratzea. Ez gara aspertzen, hegan egiten duzun aldi bakoitza ezberdina baita.
- 10. Zer antolatu duzue biharko Sakana Parapente Egunerako?**
- 90 bat pertsonak eman dute izena, espero baino gehiago. Gasteiztik, Urduñatik, Iruñetik, Gipuzkoatik eta Leonetik datoz. Iturmendiko bajera batean egun osoan barna egonen da zer jan eta zer edan. Goizeko 10:00etatik aurrera 60 bat parapentezuan ibiliko dira hegan. Besteak gora eta behera ibiliko gara jendea igotzen. 18:30ean azken hegaldiak izango dira eta ondoren Altsasuko II Padrinora joango gara, Ordiziko Cabbage City Rockers taldeak kontzertua eskainiko du eta ondoren afaltzera bilduko gara. Herrimailako denda, enpresa, landetxeak... ustegenuena baino gehiago lagundu digute eta eskerrak eman behar dizkiegu.
- 11. Gure esku giza katea igandean. Goitik ikustea izugarria.**
- Paisajea oraindik ederragoa izango da. Hainbat hegan egitera aterakoa. Batzuek prentsari lagunduko diote, bertatik irudi ikusgarriak hartzeko, eta beste batzuk hegan egitera joango gara zeruari beste itxura bat emateko. Hego haizea behar dugu San Migeletik atera ahal izateko!

ikaslearen agendak & irakaslearen koadernoak

GURE BALIO ERANTSIAK:

Prezioak jaitsi ditugu | Agenda hezigarria: Esaera zahar, ilustrazio eta eduki didaktikoak
Orri-markatzailea | Ikastetxeari aholkularitza

diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.net